BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4217

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 11koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, helduen hezkuntzako alorrean jarduerak garatu dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei diru-laguntzak emateko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko apirilaren 19ko Aginduak (2011ko maiatzaren 17ko EHAA) helduen hezkuntzako alorrean jarduerak garatu dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei 2010-2011 ikasturterako diru-laguntzak emateko jardunbidea arautzen du eta irizpideak ezartzen ditu.

Deialdi horri dagozkion eskabide espedienteak jaso eta aztertu ondoren, Sailburuordetza honek honako hau

EBATZI DU:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean aipatzen diren erakundeei laguntzak ematea, bertan adierazten diren diru-zenbatekoez.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 11.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.

ERANSKINA

EMAN DIREN LAGUNTZAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

ENTITATEAK	LAGUNTZA
- María Inmaculada de Bilbao	5.054,00
- Dolores Sopeña –OSCUS-	12.154,00
- Otxarkoaga	10.827,00
- Fundación Peñascal	6.745,00

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

ENTITATEAK	LAGUNTZA
- María Inmaculada de Donostia-San Sebastián	7.509,00
- San Miguel-Fundación Elizarán	5.669,00